

KOSTU EGITURAK

Proiektu honetan, kostuak bi ataletan banatzen dira: **kostu finkoak** eta **kostu aldakorak**. *Kostu finkoen* artean honako gastu nagusiak aurkitzen dira: lehenik eta behin, soldatak. 5 unitate daude, bakoitza 1300 €-koa, eta guztira 6500 €-ko gastua sortzen dute, hau da, proiektuaren gastu handiena. Horrez gain, lokalaren kostua 460 €-koa da, espazioa bermatzeko beharrezkoa. Azkenik, aseguruaren kostua 700 €-koa da, proiektuko arriskuak estaltzeko ezinbesteko elementu bat.

Bestalde, *kostu aldakorrek* osagai teknologikoak eta bestelako materialak barne hartzen dituzte. Adibidez, sentso biomedikoen unitate bakoitza 75 €-koa da, prozesamendu-unitate bakoitza 100 €-koa da, eta gainontzeko hainbat osagai batuta guztira 2475 €-ko kostuaosatzen dute.

Horrek guztiak argi erakusten duenez, soldatak dira gastu nagusia eta proiektua aurrera eramateko funtsezkoak. Kostu aldakorak, berriz, ekoizpenaren bolumenaren arabera aldatzen dira. Zenbat eta gehiago ekoitzi, orduan eta merkeagoa izan daiteke produktu bakoitza. Horregatik, gastuen kudeaketa arduratsua egitea eta eskala-ekonomiak aprobetxatzea oso garrantzitsua da kostuak murrizteko eta proiektua arrakastaz garatzeko.